

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gregori Azkarate Alberdi

*Bergara
Gipuzkoa (1911)*

Aurkibidea



Biografia



1911an jaioa, Tomas Azkarate,
Zubiaurreko ferratzailea
izandakoaren alaba.

Zintak

BER-004

- **Proiektua:** Burdina: errementariak eta perratzaileak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Data:** 1994-01-01
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Arana, Iñaki

Pasarteak

1. Burnia sartutako ura legena sendatzeko

- **Erref:** BER-004/005
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:05:18. **Bukatu:** 00:06:43

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Hasieran egur-ikatzarekin lan egiten zuten eta gero hasi ziren harri-ikatzarekin. Aska baten sartzen zituzten gero burniak eta jende asko etortzen zen hango ura hartzera, legena osatzen zuela esaten zelako. Ez du gogoan baserrietarako tresnak egiten ote zituzten.</p>

2. Perratzen laguntzen

- **Erref:** BER-004/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:07:28. **Bukatu:** 00:08:38

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Behin Gregori bera ere perratzen jarri zuten. Gogoan du bi morroi ibiltzen zirela lanean perratokian.

3. Perratzaileen generazioak familian

- **Erref:** BER-004/009
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:09:58. **Bukatu:** 00:11:23

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Gregorik familian ezagutu zuen lehen perratzailea aitajauna izan zen, baina haren aitajauna ere perratzailea omen zen. Generazio askotan jarraitu dute familian perratzaile lana. Gregoriren aitona, Jose, Galizian ibili omen zen ikasten eta gero Madrilera joan zen. Han "herrero" tituloa lortu ostean itzuli zen etxera.

4. Zorroztearen truke jatekoa

- **Erref:** BER-004/015
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:20:32. **Bukatu:** 00:21:02

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Tresnak zorroztearren, jendeak jatekoa ematen zien trukean; fruta denboran, frutak, esaterako. Azkarruntzekoek bildotsarekin ordaintzen zieten.

5. Perratokiaren egitura eta atalak

- **Erref:** BER-004/019
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:27:54. **Bukatu:** 00:28:54

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Perratokiaren egitura. Perratokian zeuden atalak edo tresnak: sutegia, hauspoa, tornua...

6. Neguan umeak sutegiaren epelean

- **Erref:** BER-004/021
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:29:49. **Bukatu:** 00:30:49

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Hauspoarekin nola lan egiten zen. Sutegian ikatza eta mantatxoak ere bazeuden eta epel egoten zenez, hantxe goten ziren umeak epelean neguan. Egur-ikatz karrokada sukaldera igo eta handik goitik behera botatzen zuten gero.

7. Lehenengo permanenteak ile-apaindegian

- **Erref:** BER-004/030
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:41:53. **Bukatu:** 00:45:28

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Lehenagoko bizimoduaren inguruko kontuak. Argi gutxirekin ezagutu dituzten lekuak; lehenbiziko permanentea ile-apaindegian... Ile-apaindegian karranpak (kalanbreak) ere hartu behar izaten zituzten permanentea egin ahal izateko. Gregori eta ahizpa Bergarako lehen ile-apaintzaileak izan ziren. Gizon bati permanentea egin zioneko pasadizoa.

8. Bergarako lehen ile-apaintzaileak

- **Erref:** BER-004/031
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:45:28. **Bukatu:** 00:46:43

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Pelukerian ez zen egoten orduan txandarik eta jende asko egoten zen zain. Elkarrizketatzaileak kontatzen du berari ilea "a lo garçon" moztu ziotela jaunartzea egiteko 6 urte zituela. Beraiek ile-apaindegia jarri zutenean inguruetan ez zegoen beste ile-apaindegirik eta kanpotik ere etortzen zitzaien jendea. Hala ere, hasieran jende gutxi ibiltzen zen eta nahikoa izaten zen ahizpa ile-apaindegian.

9. Permanentea egiteak zuen arriskua

- **Erref:** BER-004/033
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:47:48. **Bukatu:** 00:49:48

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

<p>Permanentea egiteko kableekin oroitzen dira oraindik. Gerora plantxak hasi ziren. Kableak goitik behera jartzen zituzten eta eroriz gero arriskutsua izan zitekeen, buruak bustita izaten zituzten eta. Orduko argia oso baxua izaten zen, 125ekoa gehienetan. Argia joaten zenean Algodonerara korrika. Permanentea egiteko gutxienez 3 ordu behar izaten ziren.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com